

PROGRAMA
EUSKERA

URRIA AZAROA ABENDUA 2022



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

gizartea eta kultura
garaikidea

Bilbao



Somewhere from here to heaven

Bruce Baillie

Ben
Rivers

Eduardo
Williams

Apichatpong
Weerasethakul

Ana
Vaz

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA
URRI. 28 > OTS. 26

Somewhere from here to heaven

Komisarioa: Garbiñe Ortega

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok *Somewhere from here to heaven* aurkeztuko du urriaren 28an. Zentroaren erakusketa-ekoizpen berriak baliabide zinematografikoaren aukerak aztertzen ditu, erakusketa-espazio batean, zinemaren ideia birpentsatu nahian "new media"ren aro honetan.

Somewhere from here to heaven erakusketak Bruce Baillieren film-unibertsoak inspiratutako belaunaldi ezberdinetako artisten konstelazio bat marrazten du.

Bruce Baillie ezinbesteko zinemagile bat izan zen 1960ko hamarkadan: abangoardia zinematografiko iparramerikarraren garrantzitsuenetako bat eta «zinema esperimental» delakoaren sustatzaile handi bat.

Erakusketak bi zati ditu. Lehen Bailliek eta Chick Strandek, Gunvor eta Robert Nelsonek, Lawrence Jordanek eta beste batzuek, 1940ko eta 1950eko hamarkadetako ekimenek inspiratuta, San Francisco Cinematheque elkarte eta Canyon Cinema kooperatiba sortu zuten garaira hurbiltzen da.

Bigarrenak Azkuna Zentroak Baillieren iruditeriak inspiratuta lan berriak sortzeko gonbidatu dituen lau artistaren lana hartzen du. Hona aipatu artistak: **Apichatpong Weerasethakul** (Thailandia), **Ben Rivers** (Erresuma Batua), **Ana Vaz** (Brasil) eta **Eduardo Williams** (Argentina). Bruce Baillieren eta bere lanen unibertsoarekin elkarriketan sartuko zen ikus-entzunezko pieza bat egitea proposatu zitzaion. «Etengabeko bidaiak, naturaren eta gizarte modernoaren arteko sinbiosia, argiaren bilaketa intuitiboa eta gauzen esentzia espiritualak aurkitzeko bultzada dira proiektu hau ehuntzen duten ideietako batzuk, artea bizitzeko eta ulertzeko modu batekiko konpromiso sakon batek sostengatuta. Ideia hori bost artista hauen praktikaren erdigunean dago», nabarmendu du **Garbiñe Ortega** proiektuaren komisarioak.

////////////////////////////////////

Urriaren 28tik otsailaren 26ra

Erakusketa Aretoa

Sarrera doan

////////////////////////////////////

Inaugurazioa

Urriaren 28a, ostirala

17:30 Topaketa.

Garbiñe Ortega, Ana Vaz, Ben Rivers y Teddy Williams, Apichatpong Weerasethakul (online).

Sarrera librea (webgunean izena eman behar da alde aurretik)

19:00 Erakusketaren bisita

Sarrera doan

////////////////////////////////////

Somewhere from here to heaven proiektuaren barruan, Zinematekak bi zinema-ziklo programatu ditu: garaikidea eta historiko-esperimentalak.

Informazio gehiago 40. orrian



Apichatpong Weerasethakul



© Victoria Pereda

Eduardo Williams




Ben Rivers



Ana Vaz

PROGRAMA
EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2023



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea



[#artebisualak](#) [#erakusketa](#) [#zinemaesperimentalak](#)

Somewhere from here to heaven

Artistak: Ana Vaz, Apichatpong Weerasethakul,
Ben Rivers eta Eduardo Williams

Komisarioa: Garbiñe Ortega

Zinema garaikidea Azkuna Zentroko Erakusketa Aretoan sartuko da Garbiñe Ortegak komisariatutako *Somewhere from here to heaven* proiektuarekin. Erakusketak belaualdi desberdinetako artisten konstelazio bat marrazten du, Bruce Baillieren unibertso filmikoaren eraginpean izandakoa. Baillie 1960ko hamarkadako "funtsezko" zinemagilea izan zen, Ipar Amerikako abangoardia zinematografikoko zinemagilerik nabarmenenetako bat eta zinema esperimentalaren sustatzaile handia.

Bere zinema poetiko eta soziala inspirazioa izan da zentroaren ekoizpen honetarako [Ana Vaz](#), [Apichatpong Weerasethakul](#), [Ben Rivers](#) eta [Eduardo Williamsek](#) egin dituzten lanetan. Sorkuntza esperimental garaikidearen eta mugimenduzko irudiaren erreferenteak dira denak. Lan berri horiez gain, erakusketan J.P. Sniadecki zinemagileak proiektu honetarako berriaz egin duen pieza bat izango da ikusgai: Baillieren bizitzako azken urteetan, harekin bizi izandako une intimoek osatua.

Bidaia etengabea, naturaren eta gizarte modernoaren arteko sinbiosia, argiaren bilaketa intuitiboa eta gauzen esentzia espiritualak aurkitzeko bulkada dira, Garbiñe Ortegaren esanetan, «proiektu hau ehuntzen duten ideietako batzuk. Artea bizitzeko eta ulertzeko modu batekiko konpromiso sakona da sostengua, bost artista hauen praktikaren muinean dagoen ideia».

ARTISTAK:

APICHATPONG WEERASETHAKUL (Bangkok, 1970) Zinema garaikidean ikuspeirik berezietako bat duen egiletzat hartuta, bere film luze eta laburrak aintzatetsiak izan dira nazioartean eta sari ospetsuak eskuratu dituzte, esaterako, Cannesko Zinemaldiko Urrezko Palma.

ANA VAZ (Brasilia, 1986) Etnografiaren eta espekulazioaren artean kokatuta daude Ana Vazen lanak, eta mito eta historiaren, kultura eta naturaren, "ni" eta "bestearen", paisaia basati eta zibilizatuaren arteko harremanak ikertzen dituzte. Haren lanaren ezaugarri nagusia da aurkitutako materiala eta filmazio propioa nahastea.

EDUARDO WILLIAMS (Buenos Aires, 1987) Williams bezalako errealizadoreek zinema hizkuntza-tresna gisa hartzen dute, inola ere ezin bereiz daitekeena berezko existentziatik, mundua ikusteko duten eratik eta mundu hori nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen moldetik.

BEN RIVERS (Erresuma Batua, 1972) Zinemagile gisa egindako lana dokumentalaren eta fikzioaren artean dago. Askotan gizartetik nolabait aldenitu diren pertsonen jarraitu, eta filmatzen ditu. Material gordin horrek abiapuntua ematen dio bazterreko munduetan existentzia alternatiboak irudikatzen dituzten narratiba zeharrak sortzeko.

2022KO URRIAREN 28TIK 2023KO APIRILAREN 16RA

Erakusketa Aretoa
Sarrera doan

Bisita gidatua Garbiñe Ortega komisarioarekin

Asteazkena, urtarrilak 25,
18:30
Osteguna, otsailak 23, 18:30
Sarrera dohainik, web orrian
izena eman ondoren

Zinemateka
Somewhere from here to heaven zikloa

Urtarrilaren 25etik
otsailaren 8ra
Kontsultatu programa 28.
orrian

LIBURUA / KATALOGOA *Somewhere from here to heaven*

Egilea(k): Erika Balsom, Steve Anker, Scott McDonald, Jonas Mekas, Peter Hutton, Max Goldberg, Andréa Picard, JP Sniadecki, Apichatpong Weerasethakul, Ana Vaz, Ben Rivers y Eduardo Williams.

Otsailean salgai dendAZen, Azkuna Zentroaren dendan, eta dendaz.azkunazentroa.eus webgunean.

PROGRAMA
EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2023



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea



[#artebisualak](#) [#erakusketa](#) [#zinemaesperimentalak](#)

Somewhere from here to heaven

Artistak: Ana Vaz, Apichatpong Weerasethakul,
Ben Rivers eta Eduardo Williams

Komisarioa: Garbiñe Ortega

2022KO URRIAREN 28TIK 2023KO APIRILAREN 16RA

Erakusketa Aretoa

Sarrera doan

Erakusketa Aretoa apirilaren 16ra arte egongo da *Somewhere from here to heaven*, 1960ko hamarkadako "funtsezko" zinemagile eta zinema esperimentalaren sustatzaileetako bat izan zen Bruce Baillieren lanaren inguruko erakusketa.

Zinema esperimentalean aditua den Garbiñe Ortegak komisariatuta, erakusketak [Bruce Baillieren](#) unibertso filmikoaren eragina duten hainbat belaunalditako artisten konstelazio bat marrazten du. Baillieren zinema poetiko eta soziala inspirazio-iturria izan da sorkuntza esperimental garaikidean eta mugimenduko irudian nazioarteko erreferentzia diren ondoko lau artistek Zentroaren ekoizpen honetarako egin duten lanetarako: [Apichatpong Weerasethakul](#), [Ben Rivers](#), [Ana Vaz](#) eta [Eduardo Williams](#). Erakusketa honetarako sortu dituzten lanek ibilbide bat hasi dute mundu osoko zinema-zirkuituetan barrena, esaterako, Berlingo Nazioarteko Zinema Jaialdian.

Lan berri horiez gain, erakusketan J.P. Sniadecki zinemagileak proiektu honetarako berriaz egin duen pieza bat izango da ikusgai: Baillieren bizitzako azken urteetan, harekin bizi izandako une intimoek osatua.

Bidaia etengabea, naturaren eta gizarte modernoaren arteko sinbiosia, argiaren bilaketa intuitiboa eta gauzen esentzia espirituala aurkitzeko bulkada dira, Garbiñe Ortegaren esanetan, «proiektu hau ehuntzen duten ideietako batzuk. Artea bizitzeko eta ulertzeko modu batekiko konpromiso sakona da sostengua, bost artista hauen praktikaren muinean dagoen ideia».

LIBURUA / KATALOGOA

Somewhere from here to heaven

Egileak: Erika Balsom, Steve Anker, Scott McDonald, Jonas Mekas, Peter Hutton, Max Goldberg, Andréa Picard, JP Sniadecki, Apichatpong Weerasethakul, Ana Vaz, Ben Rivers eta Eduardo Williams.

Salgai dendAZen, Azkuna Zentroaren dendan, eta dendaz.azkunazentroa.eu webgunean.

ARTISTAK:

APICHATPONG WEERASETHAKUL (Bangkok, 1970) Zinema garaikidean ikuspegi berezietako bat duen egilezat hartuta, bere film luze eta laburrak aintzatetsiak izan dira nazioartean eta sari ospetsuak eskuratu dituzte, esaterako, Cannesko Zinemaldiko Urrezko Palma.

ANA VAZ (Brasilia, 1986) Etnografiaren eta espekulazioaren artean kokatuta daude Ana Vazen lanak, eta mito eta historiaren, kultura eta naturaren, "ni" eta "bestearen", paisaia basati eta zibilizatuaren arteko harremanak ikertzen dituzte. Haren lanaren ezaugarri nagusia da aurkitutako materiala eta filmazio propioa nahastea.

EDUARDO WILLIAMS (Buenos Aires, 1987) Williams bezalako errealdoreek zinema hizkuntza-tresna gisa hartzen dute, inola ere ezin bereiz daitekeena berezko existentziatik, mundua ikusteko duten eratik eta mundu hori nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen moldetik.

BEN RIVERS (Erresuma Batua, 1972) Zinemagile gisa egindako lana dokumentalaren eta fikzioaren artean dago. Askotan gizarrietik nolabait aldendu diren pertsonen jarraitu, eta filmatzen ditu. Material gordin horrek abiapuntua ematen dio bazterreko munduetan existentzia alternatiboak irudikatzen dituzten narratiba zeharrak sortzeko.